2027ko ZERGA-GASTUEN AURREKONTUA
PRESUPUESTO DE GASTOS FISCALES 2027

Itundutako zergei eragiten dieten zerga-gastuen zenbatekoa Aurrekontuen Proiektuan nahitaez sartu behar denez, dokumentu honetan 2027ko ekitaldiari buruzko Zerga-gastuen Aurrekontua aurkeztuko da, urtero bezala.

Con el fin de dar cumplimiento a la obligación de incluir en el Proyecto de Presupuestos Generales de Bizkaia el importe de los gastos fiscales que afecten a los tributos concertados, en este documento se procede a la presentación, como todos los años, del Presupuesto de Gastos Fiscales, referido al ejercicio 2027.

Arautegiak ezartzen duen betebehar hau, aldi berean, Espainiako Konstituzioan agertzen da, hain zuzen ere bere 134.2. artikuluan eta helburua, azken finean, tributuak ukitzen dituzten zerga hobariak zenbatestea da.

Esta obligación normativa viene incluso recogida en la Constitución Española en su artículo 134.2 y su fin último es cuantificar los beneficios fiscales que afectan a los tributos.

Era berean, Euskadiko Aurrekontuen Araubidea arautzen duen araudiak ezartzen duenez, Autonomia Erkidegoko Administrazioaren aurrekontuek, Foru Aldundiek Euskal Herriko aurrekontu gastuei kontribuzio gisa egindako ekarpenei dagozkien zerga onurak gordailutuko dituzte.

Igualmente, la normativa reguladora del Régimen Presupuestario de Euskadi establece que los presupuestos de la Administración de la Comunidad Autónoma consignarán los beneficios fiscales correspondientes a las aportaciones que efectúen las Diputaciones Forales como contribución a los gastos presupuestarios del País Vasco.

Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorraren Testu Bateginaren 39. artikuluak xedatzen duenez, Bizkaiko Aurrekontu Orokorren Foru Arauaren urteko proiektuari nahitaez atxiki beharko zaio zerga-gastuen aurrekontua, besteak beste.

Por su parte, el artículo 39 del Texto Refundido de la Norma Foral General Presupuestaria del Territorio Histórico de Bizkaia, establece que, al proyecto anual de Norma Foral de Presupuestos Generales de Bizkaia, se deberá adjuntar obligatoriamente, entre otra información, el Presupuesto de Gastos Fiscales.

Horrez gain, Ogasun eta Finantza Saileko Egitura Organikoaren Erregelamenduak, urtarrilaren 28ko 3/2020 Foru Dekretuaren bidez onartuak eta urtarrilaren 31ko 15/2023 Foru Dekretuak, abenduaren 14ko Foru Dekretuak eta uztailaren 18ko Foru Dekretuak aldatuak, 50. artikuluko 17. apartatuan xedatzen du Zerga Politikako Zerbitzuari dagokiola BLHko zerga-gastuen aurrekontua egitea.

Por otro lado, el Reglamento de Estructura Orgánica del Departamento de Hacienda y Finanzas aprobado por Decreto Foral 3/2020 de 28 de enero, y modificado por Decreto Foral 15/2023, de 31 de enero, por Decreto Foral 195/2023, de 14 de diciembre, y por Decreto Foral 82/2024, de 18 de julio, en su artículo 50, apartado 17 establece que corresponde al Servicio de Política Fiscal, la elaboración del Presupuesto de Gastos Fiscales del THB.

Zerga-gastuen aurrekontuaren helbururik behinena Bizkaiko Foru Aldundiaren kudeaketa propiokoak diren zergak ukitzen dituzten zerga hobariak zenbatestea da.

El Presupuesto de Gastos Fiscales (PGF) tiene como principal objetivo cuantificar los beneficios fiscales que afectan a los tributos de gestión propia de la Diputación Foral de Bizkaia.

2027ko ZERGA-GASTUEN AURREKONTUA
PRESUPUESTO DE GASTOS FISCALES 2027

ZGA definitzeko esan daiteke urte osoan zehar ziur aski gertatuko den zerga sarreren murrizketaren adierazpen zenbakizkoa dela. Murrizketa hori politika ekonomiko eta gizarte politikaren arloetako helburu jakin batzuk lortzeko izaten diren zerga pizgarriak ematearen ondorioz gertatzen da.

Zerga politikaren eta ekonomian dagoen esku hartze publikoaren analisirako tresna izateko erabilera du; honela, gizarte eta ekonomia arloko xede desberdinei (hezkuntza, etxebizitza, osasuna, aurrezki eta inbertsioen sustatzea, etab.) arreta jartzeak ekarriko lukeen zerga sakrifizioari buruzko informazioa lortuko genuke. Era berean, zerga-gastuak kuantifikatzeak, aurrekontuaren benetako dimentsioaz ohartzea ahalbideratzen du.

Nahiz eta legez ZGAren edukia zehaztu gabe egon aspaldiko urte hauetan zehar gastu hauek egiteko irizpide batzuk definitu direla esan daiteke.

Horrela, bada, azken ekitaldi hauetan erabili den metodologia Euskadiko Zerga Koordinaziorako Organoaren bidez (EZKO) adostutakoa izan da, batez ere zuzeneko zergei dagokienez, hain zuzen ere zerga-gastuaren zenbatespena zeharkako zergetan estatuko ZGAk ezartzen duelako arlo horretan Foru Aldundiek ez dutelako eskumenik arautegiak emateko.

Azken urteetan, lanak egin dira hiru lurralde historikoetarako metodologia erkidea eguneratzeko EZKOrekin batera, eta zerga-gastuak zenbatzeko eta zenbatesteko zenbait irizpide metodologiko erkide ezartzeko balio izan du, betiere etorkizuneko aurrerapenetara eta berrikuspenetara irekita, hain zuzen kontzeptuen garapenen edo zenbatespenaren eta informazio eskuragarriaren hobekuntzaren ondorioz.

Dokumentu honen edukiak bereziki ondoko alderdi hauetan finkatzen dira:

El PGF puede definirse como la expresión cifrada de la disminución de ingresos tributarios que previsiblemente se producirá a lo largo del año como consecuencia de la concesión de incentivos fiscales orientados al logro de determinados objetivos de política económica y social.

Tiene la utilidad de servir como instrumento de análisis de la política fiscal y de la intervención pública en la economía, proporcionando información sobre los sacrificios fiscales que supone la atención a diferentes objetivos de carácter social y económico (educación, vivienda, sanidad, promoción del ahorro e inversiones, etc.). Asimismo, la cuantificación de los gastos fiscales permite apreciar la verdadera dimensión del presupuesto.

Aunque legalmente no está especificado el contenido del PGF, a lo largo de los años se han ido definiendo una serie de criterios para su elaboración.

Así, la metodología utilizada en los últimos ejercicios ha sido consensuada a través del Órgano de Coordinación Tributaria (OCTE), sobre todo en lo referente a los tributos directos, ya que la cuantificación del gasto fiscal en los tributos indirectos viene determinada por el PGF del Estado dada la falta de competencia normativa de las Diputaciones Forales en esta materia.

En los últimos años se han efectuado trabajos consistentes en la actualización de la metodología común para los tres Territorios Históricos junto con el OCTE y han servido para establecer unos criterios metodológicos comunes para la cuantificación y estimación de los gastos fiscales, en un contexto abierto a futuros avances y revisiones, fruto de desarrollos conceptuales o de mejoras en la estimación y la información disponible.

Los contenidos de este documento abarcan básicamente las siguientes cuestiones:

- Zerga hobariaren kontzeptua mugatzea.
- ZGA uki ditzaketen arauen aldaketen azterketa eta horiek zenbatesteko prozedura, baldin eta eragiketa horiek egiteko informazio nahikoa badago.
- Metodologien deskripzioa eta erabili diren estatistikako iturriak.

Zerga-gastu moduan sartzen dira zergadunentzat zerga hobariak eragiten dituzten zergen arloko kontzeptu edo parametro guztiak, hain zuzen ere zerga administrazioaren biltzeko ahalmena murrizten eta mugatzen dutenak. Elementu horiek ondoko bitarteko hauen bidez taxutzen dira: salbuespenak; zerga-oinarrien edo likidagarrien murrizketak; zerga-tasa murriztuak; zerga guztietako kuota osoen, likidoen edo diferentzialen hobari eta kenkariak.

ZGAtik salbuetsita daude berariaz zerga zorraren ordainketari dagokionez konturako ordainketak, geroratzeak edo zatikatzeak ukitzen dituztenak, baita aurreko urteetako izaera negatiboko oinarrien konpentsazioak ere.

Zerga hobari guztiek lotuta daramaten “sarreren galera” deritzon zenbatesteko metodoa hartzen da eta hori definitzeko esan behar da zerga sarrerak murrizten diren zenbatekoa dela, eta horren balorazioa “kutxako irizpidea” erabiliz egiten da, edo sarreren galera hori gertatzen den unekoa.

Argi dagoen bezala ZGAn zerga-gastu bat sartzeko beharrezkoa da hori zenbatesteko aukerak emango dituen zerga iturri edo estatistikako iturriren bat egotea.

Kontuan hartu behar da urtean likidatzen diren zerga zuzen horietan, hala nola, PFEZean, Sozietateen gaineko Zergan eta Sozietateen gaineko Zergan, urtebeteko desfasea dagoela ZGAren denborazko erreferentziaren eta errentak edo mozkinak ateratzen diren ekitaldiaren artean. Horregatik arauen arloko berrikuntzak 2026. ekitaldiari buruzkoak dira, hau da ZGA 2027an eragina duten zuzeneko zergak ukitzen dituztenak.

- La delimitación del concepto de beneficio fiscal.
- El examen de los cambios normativos que puedan afectar al PGF y el procedimiento para su cuantificación, cuando se dispone de información suficiente.
- La descripción de la metodología y las fuentes estadísticas utilizadas.

Se incluyen como gasto fiscal el conjunto de conceptos o parámetros impositivos que originan beneficios fiscales para los contribuyentes y que, por tanto, merman la capacidad recaudatoria de la Administración Tributaria. Estos elementos se articulan mediante exenciones, reducciones en las bases imponibles o liquidables, tipos impositivos reducidos, bonificaciones y deducciones de las cuotas íntegras, líquidas o diferenciales de los diversos tributos.

Se excluyen del PGF los conceptos que afectan exclusivamente a los pagos a cuenta, los aplazamientos o fraccionamientos del pago de la deuda tributaria, y las compensaciones de bases de signo negativo de años anteriores.

Se adopta el método de cuantificación de la “pérdida de ingresos” que conlleva todo beneficio fiscal definida como el importe en el cual se reducen los ingresos tributarios y su valoración se efectúa de acuerdo con el “criterio de caja” o momento en que se produce la merma de ingresos.

Por supuesto, la incorporación de un gasto fiscal al PGF está supeditada a la disponibilidad de alguna fuente fiscal o estadística que permita su estimación.

Hay que tener en cuenta que en los tributos directos que se liquidan anualmente, tales como IRPF, Impuesto sobre Sociedades, e Impuesto sobre Patrimonio, existe un desfase de un año entre la referencia temporal del PGF y el ejercicio en que se obtienen las rentas o los beneficios. Por ello las novedades normativas son las referidas al ejercicio 2026 que afectan a los tributos directos que tengan repercusión en el PGF 2027.

2027ko ZERGA-GASTUEN AURREKONTUA
PRESUPUESTO DE GASTOS FISCALES 2027

2027ko zerga-gastuen aurrekontua egitean, ez da egitura-aldaketarik egin zerga-gastuaren kalkuluetan eragina duten zergen araudian, neurri hauei dagozkienak izan ezik: apirilaren 9ko 2/2025 Foru Arauak egindako zerga-berrikuspenerako neurriak, zerga-gastuen aurrekontu (ZGA) honen xede diren zenbait tributuri eragiten baitiete. Berrikuntzetako batzuk ezin izan ziren aurrekontuan sartu aurreko ekitaldian, eta aurten sartu dira lehenengo aldiz. Gainerakoetarako, hau da estimazioa egiteko datu errealetan oinarritu gaitezkeen lehenengo ekitaldia. Neurri horiek guztiak bete nahi diren 6 erronka nagusiren inguruan egituratu dira:

1. Familia, berdintasuna, kontziliazioa, emakumea eta gazteria
2. Etxebizitza.
3. Gizarte-aurreikuspena
4. Trantsizio berdea.
5. Progresibitatea eta aberastasunaren birbanaketa.
6. Ekoizpen-sarea babestea eta bultzatzea.

- Lehenengo erronkari dagokionez, neurri hauek aipatu behar dira:

  Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren (PFEZ) eremuan, emakumeak bereziki babesteko tratamendu bereizia ematen da, kenkari-ehunekoa 100eko 15eraino igoz, muga 1.800 euro delarik, eta 100eko 30 edo 100eko 40raino berriak edo sortu berriak diren mikroenpresa, enpresa txiki edo ertain berritzaileetan nahiz zilarrezko ekonomiarekin lotutakoetan egindako inbertsioengatik, hurrenez hurren.

En la elaboración del Presupuesto de Gastos Fiscales 2027, no se han producido cambios estructurales en la normativa de los diferentes tributos que tengan repercusión en los cálculos del gasto fiscal, con la excepción fundamental de aquellos relativos a las medidas para la revisión fiscal acometida por la Norma Foral 2/2025, de 9 de abril, afectando a diferentes tributos objeto de este Presupuesto de Gastos Fiscales (PGF). Varias de las novedades no pudieron ser presupuestadas en el ejercicio anterior, y se incluyen por primera vez este año. Para el resto, este es el primer ejercicio en el que nos podemos apoyar en datos reales para realizar la estimación. Todas estas medidas se han estructurado en 6 grandes retos a los que se pretende dar cumplimiento:

1. Familia, igualdad, conciliación, mujer y juventud.
2. Vivienda.
3. Previsión social.
4. Transición verde.
5. Progresividad y redistribución de la riqueza.
6. Protección e impulso del tejido productivo.

- En cuanto al primero de los retos, cabe señalar las siguientes medidas:

  En el ámbito del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas (IRPF) se da un tratamiento diferenciado de especial protección al colectivo de las mujeres elevándose el porcentaje de deducción hasta el 15 por 100 con el límite de 1.800 euros y hasta el 30 por 100 o 40 por 100 en las deducciones por participación de las y los trabajadores en la empresa y por inversión en microempresas, pequeñas o medianas empresas de nueva o reciente creación, innovadoras o vinculadas con la economía plateada, respectivamente.

Berebat, gazteen aldeko tratamendu fiskala ezarri da, halakotzat harturik 35 urterainokoak, eta, horri esker, aukera ematen da kuota nahikoa ez izateagatik sortze-ekitaldian aplikatzen ez diren kenkariak (ondorengoengatik, ohiko etxebizitza alokatzeagatik eta ohiko etxebizitza erosteagatik) jatorrizko zergaldiaren ondorengo bost urteetan amaitzen diren zergaldietako aitorpenetan aplikatu ahal izateko.

Asimismo, se establece un tratamiento fiscal favorable a los jóvenes elevando su consideración hasta los 35 años, que se materializa en la posibilidad de que las deducciones por descendientes, alquiler de vivienda habitual y adquisición de vivienda habitual no aplicadas en el ejercicio de generación por insuficiencia de cuota puedan aplicarse en las declaraciones de los periodos impositivos que concluyan en los cinco años inmediatos y sucesivos al período impositivo del que procedan.

Nabarmentzeko berrikuntza gisa, baterako tributazioagatiko murriztapen bakar bat ezarri da, 4.800 eurokoa, eta berriro definitu da familia-unitatearen kontzeptua, bizikidetza-modu berriak kontuan hartzeko. Senar-emazteak legez banantzen direnean edo ezkontza-loturarik nahiz izatezko bikoterik ez dagoenean, edo ebazpen judiziala eman denean, guraso batek edo adoptatzaileak edo harrera-egileak eta ekonomikoki modu esklusiboan haren mende dauden pertsonek osatuko dute familia-unitatea, eta iuris tantum joko da bi gurasoen mendekotasun ekonomikoa dagoela. Gainera, kontziliazioa sustatzeko neurriak onartu dira, kenkari pertsonal eta familiarrak jasoz, zeinak, egiturazkoak direnez, ez baitira zerga-gastutzat hartzen.

Como gran novedad se establece una única reducción por tributación conjunta de 4.800 euros y se redefine el concepto de unidad familiar para incluir nuevas formas de convivencia, que en caso de separación legal, ausencia de vínculo matrimonial o pareja de hecho y existencia de resolución judicial al efecto será unidad familiar la persona progenitora o la persona adoptante o acogedora y todas las personas dependientes económicamente de forma exclusiva, presumiendo iuris tantum que existe dependencia económica de ambos progenitores. Además, se aprueban medidas para el fomento de conciliación que se plasman en deducciones personales y familiares que por tener carácter estructural no tienen la consideración de gasto fiscal.

Kontziliazioa sustatzeko neurri horietako batzuk sozietateen gaineko zergaren (SZ) eremuan ere jaso dira, Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 66 sexies artikulu berriaren bidez. Izan ere, kenkari berritzaile bat ezartzen du artikulu horrek familia, lana eta bizitza pertsonala bateragarri egiteko neurri berriak ezartzeagatik; horretarako, beharrezkoa da familia, lana eta bizitza pertsonala bateragarri egiteko neurri berriak zergadunaren kontziliazio-planean jasota egotea, lege-esparruan nahitaez bete beharreko gutxienekoak gainditzea eta langile guztientzat eskuragarri egotea. Enpresek arlo horretan egiten duten ahalegina progresiboa saritzeko, bi kenkari-zenbateko aurreikusten

Algunas de estas medidas, de fomento de conciliación, se contemplan a su vez en el ámbito del Impuesto sobre Sociedades (IS), con el nuevo artículo 66 sexies de la Norma Foral del Impuesto sobre Sociedades, que prevé una novedosa deducción por la implantación de nuevas medidas de conciliación de la vida personal, familiar y laboral, siendo necesario que las nuevas medidas en materia de conciliación de la vida personal, familiar y laboral se encuentren recogidas en el Plan de Conciliación del contribuyente, superen los mínimos de obligado cumplimiento establecidos en el marco legal y se encuentren disponibles para todas las personas trabajadoras. Con el objeto de premiar un

dira: bata kuota likidoaren 100eko 5ekoa, muga 5.000 euro delarik artikuluan bertan aurreikusitako neurrietako bat jasotzen duen kontziliazio-plan bat ezartzeko ekitaldian, eta bestea handiagoa, 100eko 15ekoa, muga 7.500 euro delarik, gutxienez plantillaren heren bat aipatutako neurrietakoren bati atxikitzen zaion lehenengo ekitaldian. Halaber, emakumeen eta 36 urtetik beherakoen enplegua sortzea sustatze aldera, kenkari berri bat sortu da 66 decies artikuluan, sorrera hori sustatzeko, eskakizunak murrizturik Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 66. artikuluan araututako kalitatezko enplegua sortzeagatiko kenkarirako aurreikusitakoekin alderatuta. Bistan denez, neurri horiek guztiek onura fiskala dakarte, baina ez daukagu informazio nahikorik onura hori zenbatekoa litzakeen estimatzeko.

esfuerzo progresivo de las empresas en este ámbito se prevén dos cuantías de deducción, una del 5 por 100 de la cuota líquida con el límite de 5.000 euros en el ejercicio de implantación de un Plan de Conciliación que contenga alguna de las medidas previstas en el propio artículo y otra superior, del 15 por 100, con el límite de 7.500 euros, en el primer ejercicio en el que al menos un tercio de la plantilla se encuentre acogida a alguna de las medidas señaladas. Asimismo, en aras de impulsar la creación de empleo de mujeres y personas menores de 36 años, se crea una nueva deducción en el artículo 66 decies que incentiva dicha creación, con una rebaja de las exigencias respecto de las previstas para la deducción por creación de empleo de calidad regulada en el artículo 66 de la Norma Foral del Impuesto sobre Sociedad. No obstante, a pesar de que todas estas medidas constituyen un beneficio fiscal, si bien no se dispone de información para incluir una estimación de estas.

- Etxebizitzaren fiskalitateari lotutako bigarren erronkak ZGA honetan sartzen diren zerga jakin batzuei eragiten die; alegia, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari eta kostu bidezko ondare-eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergari:

  Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari dagokionez, hauek dira aldaketarik nabarmenenak:

  Errentatzailearen egoitzan, batetik, zenbait hobari-ehuneko onetsi dira, kapital higiezinaren etekin osoei gastu gisa aplikatzekoak, errentan emandako etxebizitza motaren arabera, eta, bestetik, errentan emandako etxebizitza birgaitzeko kenkari bat, zeinaren zenbatekoa ezin baita estimatu ZGA honetarako.

- El segundo de los retos referente a la fiscalidad asociada a la vivienda afecta a determinados impuestos que se incluyen en este PGF, que son el Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas y al Impuesto sobre Transmisiones Patrimoniales Onerosas y Actos Jurídicos Documentados (ITP y AJD):

  En relación con el Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas las modificaciones más reseñables son las siguientes:

  En sede la de persona arrendadora se aprueban diferentes porcentajes de bonificación aplicables sobre los rendimientos íntegros del capital inmobiliario en concepto de gastos, en función de la tipología de la vivienda arrendada, así como una deducción destinada a la rehabilitación de la vivienda objeto de arrendamiento cuyo importe no se estima para este PGF dada su imposibilidad.

Errentariaren egoitzan, gizatalderik kalteberenentzako kenkari-ehunekoa % 35eraino gehitu da, muga 2.800 euro delarik urtean, eta, gainera, beste gizatalde kaltebera batzuk ere sartu dira. Hauek dira aldeko tratamendu fiskala merezi duten gizataldeak: familia ugariaren titulua duten zergadunak; guraso bakar batek eta, besteak beste, beraren ondorengoek osatutako familia-unitate bateko kide diren zergadunak; 36 urte baino gutxiago dituzten zergadun gazteak; % 65eko edo gehiagoko desgaitasuna aitortuta daukaten zergadunak, edo, bestela, mendekotasun-graduren bat aitortuta daukatenak, eta etxeko indarkeriaren edo genero-indarkeriaren biktimatzat hartzen diren zergadunak, edo honako hauek osatutako familia-unitate bateko kide diren zergadunak: zergadunak edo zergadunek, adingabeek eta ordezkaritzako kuradoretzapean dauden adinekoek, zeinen zaintza etxeko indarkeriaren edo genero-indarkeriaren ondorioz eman baitzaie.

En sede de la persona arrendataria se incrementa el porcentaje de deducción para los colectivos más vulnerables hasta el 35% con un máximo de 2.800 euros anuales, dando a su vez cabida a nuevos colectivos vulnerables. Estos colectivos que se consideran merecedores de un tratamiento fiscal favorable son los siguientes: personas contribuyentes que sean titulares de familia numerosa, personas contribuyentes que formen parte de una unidad familiar constituida por un solo progenitor o progenitora y sus descendientes, entre otras personas, personas contribuyentes jóvenes que tengan una edad inferior a 36 años, personas contribuyentes que tengan reconocida una discapacidad con un grado igual o superior al 65 % o tengan reconocidos alguno de los grados de dependencia y personas contribuyentes que tengan la consideración de víctimas de violencia doméstica o de género o formen parte de una unidad familiar constituida por la persona o personas contribuyentes junto con menores de edad y mayores sometidos a curatela representativa cuya custodia le haya sido atribuida por razón de violencia doméstica o de género.

Ohiko etxebizitza eskuratzeari dagokionez, etxebizitza-kontuaren modalitatea barne, lehen adierazitakoaren ildotik, hau da, kontuan harturik 36 urtetik beherakoak jotzen direla gaztetzat, eta, aurreko arauan, berriz, 30 urtetik beherakoak jotzen zirela, 30-35 urtekoei ematen zaie orain ehuneko 23ko kenkari gehitua aplikatzeko aukera, muga 1.955 euro delarik. Ehuneko hori ohiko etxebizitza erosteagatik ere aplikatzen zaie ohiko etxebizitza alokatzeagatik kenkariaren ehuneko gehitua (lehen aipatua) aplikatzeko eskubidea duten gizatalde kalteberenei, salbu eta etxebizitza-kontua badute. Gainera, kendu egin da gehieneko kenkariaren muga hori ohiko etxebizitzaren erosketa formalizatzen den zergaldirako, 36 urtetik beherako zergadunentzat soilik, eta, horrenbestez, kuota osoaren mugaraino kendu ahal izango da.

En materia de adquisición de vivienda habitual, incluida la modalidad de cuenta vivienda, en la línea señalada anteriormente, de considerar joven a la persona menor de 36 años, frente a los 30 años previstos en la normativa anterior, se da acceso a este colectivo de entre 30 y 35 años al porcentaje incrementado de deducción del 23 por cien con el límite de 1.955 euros. Porcentaje que se aplica igualmente a la adquisición de vivienda habitual, por los colectivos más vulnerables que gozan del porcentaje incrementado de deducción por alquiler de vivienda habitual anteriormente señalado, salvo para la cuenta vivienda. Asimismo, se elimina el anterior límite de deducción máxima en el periodo impositivo en que se formaliza la adquisición de la vivienda habitual, exclusivamente para personas contribuyentes menores de 36 años, pudiendo deducir hasta el límite de la cuota íntegra.

2026az geroztik, berrikuntza gisa sartu da zergadunak 68.000 euroko edo gutxiagoko likidazio-oinarri orokorra eta, hala badagokio, aurrezkiaren likidazio-oinarria izateko betekizuna, ohiko etxebizitzaren errentamenduagatiko eta ohiko etxebizitza eskuratzeagatiko kenkaria aplikatu ahal izateko.

Ohiko etxebizitza erosteari dagokionez, aipatu behar da ezen, zergari buruzko foru-arauaren 49. artikuluari jarraikiz, tratamendu berria emango zaiela ohiko etxebizitza eskualdatzetik eta berrinbertitzetik eratorritako irabaziei, betiere etxebizitza aldatzea justifikatzen duen inguruabarren bat gertatzen bada. Zerrenda ireki batean jaso dira etxebizitza-aldaketa hori justifikatzen duten inguruabarrak; izan ere, erregelamendu bidez zabaldu ahal izango da zerrenda hori.

Zeharkako zergen arloan, bi neurri jaso dira kostu bidezko ondare-eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergan. Lehenik eta behin, aldatu egin da zergari buruzko foru-arauaren 13. artikuluaren c) letra, betekizun hau kentzeko: eskuratzaileak 100eko 2,5eko tasa aurretik aplikatu ez izana ohiko etxebizitza bera edo beste bat eskuratzean. Bigarrenik, eta errentamenduaren arloan, 46. apartatua gehitu da 58. artikuluan, erabilera egonkor eta iraunkorrerako etxebizitzaren errentamenduen salbuespena deklaratzeko.

- Zerga-berrikuspenean aurre egin nahi zaion hirugarren erronka gizarte-aurreikuspena da, berritasunak baitakartza PFEZean zein SZan.

PFEZari dagokionez, eta zerga-oinarri orokorrean aplikatzen diren murriztapenen arloan, aldaketa hauek nabarmendu behar dira. Alde batetik, 71. artikuluaren 1. apartatuaren b) letran ezarritako 8.000 euroren mugaren barruan sartuko dira bazkideek, partaideek, aseguratuek edo mutualistek gizarte-aurreikuspeneko sistemei egindako ekarpenak,

Desde 2026 se introduce como novedad el requisito de que el o la contribuyente tenga una base liquidable general y, en su caso, una base liquidable del ahorro, iguales o inferiores a 68.000 euros para poder aplicar la deducción por arrendamiento de vivienda habitual y por la adquisición de vivienda habitual.

En materia de adquisición de vivienda habitual es necesario mencionar el nuevo tratamiento que en el artículo 49 de la Norma Foral del Impuesto se va a dar a las ganancias derivadas de la transmisión de la vivienda habitual y su reinversión siempre que concurra alguna circunstancia que justifique el cambio de vivienda, recogiéndose un número no cerrado de circunstancias que justifican el citado cambio posibilitando la ampliación del elenco por vía reglamentaria.

En la imposición indirecta, se recogen dos medidas en el Impuesto sobre Transmisiones Patrimoniales Onerosas y Actos Jurídicos Documentados. En primer lugar, se modifica la letra c) del artículo 13 de la Norma Foral del Impuesto para la eliminación del requisito de que el adquirente no hubiera aplicado el tipo del 2,5 por 100 con anterioridad en la adquisición de la misma u otra vivienda habitual. En segundo lugar, y en materia de arrendamiento se introduce un nuevo apartado 46 en el artículo 58 para declarar la exención de los arrendamientos de vivienda para uso estable y permanente.

- El tercero de los retos a los que se pretende hacer frente en la revisión fiscal es la Previsión Social que introduce novedades tanto en el IRPF como en el IS.

En lo que ataña al IRPF, y en materia de reducciones en la base imponible general, cabe destacar las siguientes modificaciones. Por un lado, dentro del límite de 8.000 euros previsto en la letra b) del apartado 1 del artículo 71 se van a incluir las aportaciones efectuadas por socios y socias, partícipes, asegurados y aseguradas o mutualistas a los referidos

direla negoziazio kolektiboan adostutako ekarpenak, direla langilearen erabaki baten ondoriozkoak. Halaber, ulertu behar da 8.000 euroren muga horren barruan sartuta daudela enpresaburu indibidualak edo profesionalak gizarte-aurreikuspeneko entitate edo mutualitateei, enpleguko pentsio-planei edo enpresen gizarte-aurreikuspeneko planei edo mendetasuneko aseguru kolektiboei egindako ekarpen propioak, baldin eta enpresaburua edo profesionala, aldi berean, sustatzailea eta partaide, mutualista edo hartzailea edo bazkide babeslea eta onuraduna bada, betiere ekarpen horiek proportzionaltasun-maila jakin bat badute enpresaburu indibidualak edo profesionalak bere ardurapeko langileen alde egiten dituen kontribuzioekiko, soldata-portzentaje bat, proportzio ekonomiko bat edo antzeko beste inguruabar batzuk kontuan izanik.

Bestalde, urteko muga berri bat ezarri da, 4.000 eurorena, enpleguko gizarte-aurreikuspeneko sistemei egindako ekarpenen baturarako, sistema horietako partaide edo bazkide osoak beren konturako langileak edo autonomoak diren kasurako. Beren ardurapean langilerik ez duten langile autonomoek enpleguko aurreikuspen-sistemei egindako ekarpenei ere aplikatuko zaie muga hori.

Ondorioz, aurreko ataletakoez bestelako gizarte-aurreikuspeneko sistemei egindako ekarpenetarako baino ez da ezartzen urteko 5.000 euroren muga.

Bestalde, bereziki berritzaileak dira bi kenkari hauek: batetik, borondatezko gizarte-aurreikuspeneko entitateetan integratutako lehentasunezko gizarte-aurreikuspeneko planei egindako ekarpenengatiko kenkaria, eta, bestetik, enpleguko gizarte-aurreikuspeneko sistemei egindako ekarpenengatiko kenkaria, baldin eta sistema horietako partaideak edo bazkide osoak norberaren konturako langileak edo autonomoak badira edo beren kargura langilerik ez duten norberaren konturako langileak edo autonomoak badira.

sistemas de previsión social, sean estas aportaciones acordadas en negociación colectiva o resulten de una decisión de la persona trabajadora. Asimismo, se entiendan incluidas en el citado límite de 8.000 euros, las aportaciones propias que el empresario individual o profesional realice a planes o mutualidades de previsión social, a planes de pensiones de empleo o a planes de previsión social empresarial o seguros colectivos de dependencia, de los que a su vez sea promotor y partícipe, o mutualista, tomador o socio protector y beneficiario, siempre que dichas aportaciones guarden un grado de proporcionalidad con las contribuciones que el empresario individual o profesional realice a favor de los y las trabajadoras a su cargo, atendiendo a un porcentaje salarial, proporción económica u otras circunstancias análogas.

Por otro lado, se regula un nuevo límite de 4.000 euros anuales para la suma de las aportaciones realizadas a sistemas de previsión social de empleo en los que las y los partícipes o socios y socias de número sean personas trabajadoras por cuenta propia o autónomas. Este límite es aplicable igualmente para las aportaciones que las personas autónomas sin trabajadoras y trabajadores a su cargo realicen a sistemas de previsión de empleo.

En consecuencia, el límite de 5.000 euros anuales se establece únicamente para las aportaciones a Sistemas de Previsión Social distintos de los previstos en los anteriores.

Otro aspecto especialmente novedoso es la implantación de la deducción por aportaciones a Planes de Previsión Social Preferentes integrados en Entidades de Previsión Social Voluntaria y la deducción por aportaciones realizadas a sistemas de previsión social de empleo en los que las y los partícipes o socios y socias de número sean personas trabajadoras por cuenta propia o autónomas o se trate de personas autónomas sin trabajadoras y trabajadores a su cargo.

2026ko PFEZeko berrikuntzetako bat prestazioei emango zaien tratamendu fiskalaren aldaketa da; izan ere, bereizi egingo dira, batetik, ekarpenen eta kontribuzioen zatia, eta, bestetik, lortutako errentagarritasunaren zatia.

Hala, eta esparru honetan aintzatespena emanik aurrezki-produktu baten errentagarritasuna kapitalaren etekintzat jo behar delako iritziari, lehenengoz sartu da kalifikazio horretan prestazioak jasotzen diren unean agerian jartzen den errentagarritasuna, salbuespenak salbuespen. Horrelako etekinek ezin izango dute 100eko 60ko edo 100eko 50eko integrazio murriztuko ehunekoen onurarik izan.

Aurrekoarekin estu lotuta, kontuan eduki beharko da prestazioa nola jasoko den. Hain zuzen ere, kapital moduan jasoz gero, integrazio-ehuneko berria (100eko 70) kapital moduan jasotakoari soilik aplikatuko zaio, eta, are gehiago, ekarpenei eta kontribuzioei dagokien zatiari baino ez, aurreko araudian ezarritako ildoari jarraikiz; alegia, zergaren progresibotasunak izan litzakeen ondorio kaltegarriak murrizten ahalegintzea.

Gainera, gizarte-aurreikuspeneko sistemei egindako ekarpenengatiko eta enpresa-kontribuzioengatiko murrizketen baterako muga bateratua aldatu da: 10.000 euro izango da urtean 2026ko urtarrilaren 1etik aurrera.

Sozietateen gaineko zergari dagokionez, bi kenkari berri ezarri dira zergaren kuota likidoan. Bata SZFAren 66 septies artikuluan dago araututa: enpresek borondatezko gizarte-aurreikuspeneko entitateetan integratutako lehentasunezko aurreikuspen-planei egindako kontribuzioengatiko kenkaria, ekarpen horiek fiskalki langileari egotzi bazaizkio. Bestea, txikiagokoa, SZFAren 66 octies artikuluan dago arautua: Enpresek enpleguko gizarte-

Como novedad para IRPF 2026 se modifica el tratamiento fiscal que se va a otorgar a las prestaciones, se va a distinguir la parte que se corresponde con las aportaciones y contribuciones de la parte que se corresponde con la rentabilidad obtenida.

Así, y dando carta de naturaleza en este ámbito a la consideración de que la rentabilidad de un producto de ahorro debe calificarse como rendimiento de capital, se incluye por primera vez en esta calificación la rentabilidad que se ponga de manifiesto en el momento de la percepción de las prestaciones, con determinadas excepciones. Este tipo de rendimientos no podrán gozar de los porcentajes de integración reducida de 60 por 100 o 50 por 100.

En íntima relación con lo anterior, habrá de tenerse en cuenta la forma en que se va a percibir la prestación. En este sentido, en el caso de que se perciba en forma de capital, el nuevo porcentaje de integración del 70 por 100 únicamente se va a aplicar a las percepciones en forma de capital y, solo en la parte de las prestaciones que se corresponda con aportaciones y contribuciones, siguiendo la línea marcada por la anterior normativa de intentar paliar los potenciales efectos perniciosos de la progresividad del impuesto.

Se modifica además el límite conjunto de las reducciones por aportaciones y contribuciones empresariales a sistemas de previsión social que pasa a ser de 10.000 euros anuales a partir del 1 de enero de 2026.

En lo que al Impuesto sobre Sociedades se refiere, se instauran dos nuevas deducciones en la cuota líquida del Impuesto. La primera de ellas se regula en el artículo 66 septies de la NFIS, deducción por las contribuciones empresariales realizadas a Planes de Previsión Preferentes integrados en Entidades de Previsión Social Voluntaria que hayan sido imputadas fiscalmente a la persona trabajadora. La otra, de menor intensidad, regulada en el

aurreikuspeneko sistemei egindako kontribuzioengatiko kenkaria.

artículo 66 octies de la NFIS, es la deducción por contribuciones empresariales a los sistemas de previsión social de empleo.

- Laugarren erronka fiskalitate berdea da. Erronka horri aurre egiteko, zenbait neurri ezarri dira; esaterako, mugikortasun jasangarriaren, eta energia-efizientziaren eta -trantsizioaren arloko kenkariak PFEZean, eta kenkari-ehuneko berriak SZFAn: ikerketa- eta garapen-jarduerengatik (Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 62. artikulua), eta garapen jasangarria, ingurumen-inpaktuaren murrizketa, trantsizio energetikoa zein ekonomia zirkularra lortzera bideratutako proiektuekin loturiko inbertsio eta gastuengatik (SZFAren 65. artikulua). Kenkari horiek guztiak badira zerga-gastuak, baina ezin da estimatu zer eragin izango luketen kenkari horietatik eratorritako zerga-gastuetan.

- El cuarto reto se refiere a la fiscalidad verde, en el que se incluyen determinadas medidas, tales como las deducciones en el ámbito de la movilidad sostenible, la eficiencia y la transición energética en el IRPF, así como en el IS nuevos porcentajes de deducción, por actividades de investigación y desarrollo del artículo 62 de la Norma Foral del Impuesto sobre Sociedades (NFIS), y por inversiones y gastos vinculados a proyectos que procuren el desarrollo sostenible, la reducción del impacto ambiental, la transición energética y la economía circular del artículo 65 dela NFIS. Todas estas deducciones sí son gasto fiscal, no obstante, no es factible llevar a cabo una estimación del efecto que pudiera ocasionar en los gastos fiscales que se deriven de las mismas.

- Bosgarren erronka progresibitatea da, PFEZaren arloan.

  Lan pertsonalaren hobariaren konfigurazio berria nabarmendu behar da. Ildo horretan, abiaburuko hobaria 8.000 euro da, lan-etekin osoaren eta gastu kengarrien arteko diferentzia positiboa 14.800 eurokoa edo txikiagoa bada; hobari txikiena 3.000 eurokoa izango da, aipatutako aldea 23.000 eurotik gorakoa bada.

  Hobariarekin bat etorriz, aldatu egin da aitorpena aurkezteko betebeharra, muga bakarra ezarri baita lanaren etekin gordinetarako: 20.000 euro.

  Bestalde, langilea kaleratzeagatiko edo lanpostua uzteagatiko kalte-ordainaren zenbateko salbuetsia 183.600 euroraino gehitu zen 2025etik aurrera.

- El quinto de los retos a los que pretende hacer frente es el relativo a la progresividad, que se centra en el IRPF.

  Se debe destacar la nueva configuración de la bonificación del trabajo personal. En este sentido, se parte de una bonificación de 8.000 euros cuando la diferencia positiva entre el conjunto del rendimiento íntegro del trabajo y los gastos deducibles sea igual o inferior a 14.800 euros, siendo la bonificación más baja de 3.000 euros en el caso en que la diferencia señalada sea superior a 23.000 euros.

  En consonancia con la bonificación de modifica la obligación de declarar estableciéndose un límite único de 20.000 euros de rendimientos brutos del trabajo.

  Asimismo, se incrementó el importe exento de la indemnización por despido o cese del trabajador hasta los 183.600 euros desde el ejercicio 2025.

Gainera, tributuaren progresibitatea sustatzeko, tarifa berri bat ezarri da 2026tik, aurrezkiaren likidazio-oinarriari aplikatu beharrekoa; hemendik aurrera bederatzi tarte egongo dira.

Además, como contribución a la progresividad del tributo, se elabora una nueva tarifa desde 2026 a aplicar a la base liquidable del ahorro incrementándose los tramos hasta nueve.

- Seigarren eta azken erronka ekoizpen-sarea babestea eta bultzatzea da, arreta dimentsio txikieneko enpresa-eragileetan jarririk sozietateen gaineko zergari dagokionez.

- El sexto y último reto se refiere a la protección e impulso del tejido productivo poniendo el foco de atención en los agentes empresariales de menor dimensión del Impuesto sobre Sociedades.

Hala, gastuen arloan, *sine die* finkatu da mikroenpresentzat zerga-oinarri positiboaren ehunekoaren igoera (%10etik % 15era), eta gastu gisa kendu ahal izango dute ehuneko hori euren dimentsioari datxezkion zailtasunengatiko tributu-konpentsazio moduan, zergaren foru arauaren 32.4 artikuluari jarraikiz. Aipatutako ehunekoa COVID-19aren pandemiak eta Ukrainako gerrak eragindako ondorioak arintzeko ezarri zen.

Así, en materia de gastos se consolida sine die para microempresas la elevación del 10% al 15 % el porcentaje de la base imponible positiva a deducir como gasto en concepto de compensación tributaria por las dificultades inherentes a su dimensión previsto en el apartado 4 del artículo 32 de la Norma Foral del Impuesto y que se había introducido para paliar los efectos derivados de la pandemia de la COVID-19 y de la guerra en Ucrania.

Gainera, gutxieneko tributazioaren arloan, berrikusi egin da konfigurazioa % 24ko karga-tasa orokorra duten entitateentzat, betiere entitate horiek enplegua mantentzen edo gehitzen ez badute eta aktiboetan inbertsiorik egiten ez badute zerga osagarrian jasotako funtsezko irizpideekin bat etorriz.

Además, en materia de tributación mínima, se revisa su configuración para las entidades que tributan al tipo de gravamen general del 24%, siempre que dichas entidades no mantengan o incrementen el empleo y no realicen inversiones en activos en línea con los criterios de sustancia recogidos en el Impuesto Complementario.

Bestalde, berriro ere sartu da ZGA honetan BATUZ sistema behin betiko ezartzeagatiko kenkaria. 2020tik 2025era bitarteko urte naturaletan egindako inbertsio eta gastuei soilik aplikatzen bazaie ere, zergadunaren kuota nahikoa ez izateagatik sortzapen-aldian kendu ez diren zenbatekoak hurrengo eta ondoz ondoko hogeita hamar urteetan amaitzen diren zergaldietako aitorpenetan aplikatu ahal izango dira. Hala ere, aurrekontutik desagertu da Batuz sistema borondatez aplikatzeagatiko konpentsazioa, behin betiko ezarpena amaitu baita.

Por otra parte, se incluye para este PGF, una vez más, la deducción por la implantación definitiva del sistema BATUZ. Si bien su aplicación se limita a las inversiones y gastos en que hayan incurrido en los años naturales 2020 a 2025, las cantidades no deducidas en el periodo de generación por insuficiencia de la cuota del contribuyente podrán aplicarse en las declaraciones de los períodos impositivos que concluyan en los treinta años inmediatos y sucesivos. Sin embargo, desaparece del presupuesto la compensación por la aplicación voluntaria del sistema Batuz ya que se ha completado la implantación definitiva.

Azkenik, PFEZean aplikatzeko kenkariei dagokienez, 88. artikulua (jarduera ekonomikoak egiten dituzten zergadunek berariaz aplikatzen dituzten kenkariei buruzkoa) Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 64 bis eta 65 quinquies artikuluetan ezarritako arauetara egokitu da, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zergadunek, jarduera ekonomikoak egiten dituztenean, aukera izan dezaten artikulu horietan araututako kenkariak aplikatzeko zenbait proiekturen finantzaketan parte hartzeagatik, baina zenbait berezitasun ezarrita. Hauek dira aipatutako proiektuak: ikerketa eta garapena edo berrikuntza teknologikoa, ikus-entzunezko obrak, arte eszenikoen eta musikalen zuzeneko ikuskizunak eta liburuen argitalpena. SZFAren 64 bis eta 66 quinquies artikuluetan araututako kenkariak aplikatzeko muga kuotaren ehuneko 25 izango da, hurrenez hurren 100eko 70 eta 100eko 50 izan beharrean. Muga hori aplikatuko da, halaber, ekonomia-intereseko taldeetako bazkideei foru-arau horren 66 quater artikuluan ezarritako kenkariak egozten zaizkienean (kultura sustatzeko pizgarriak), baldin eta talde horiei egindako ekarpenak ezaugarri berezidun ondare-tresnatzat kalifikatu behar badira kontabilitate-irizpideen arabera.

Finalmente, en relación a las deducciones en el IRPF, se acompasa el artículo 88, dedicado a las deducciones que aplican específicamente los y las contribuyentes que realizan actividades económicas, con la regulación que se establece en los artículos 64 bis,y 65 quinquies de la Norma Foral de Impuesto sobre Sociedades, para abrir la posibilidad a que los y las contribuyentes del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas que realicen actividades económicas puedan aplicar las deducciones reguladas en los citados artículos por la participación en la financiación de proyectos de investigación y desarrollo o innovación tecnológica, de obras audiovisuales, de espectáculos en vivo de artes escénicas y musicales y de edición de libros, con ciertas especialidades. Para la aplicación de las deducciones reguladas en los artículos 64 bis y 66 quinquies de la NFIS el límite será del 25 por ciento de la cuota, en vez de los establecidos del 70 por 100 y del 50 por 100, respectivamente. Este límite será asimismo de aplicación cuando se imputen a los y las socias de agrupaciones de interés económico las deducciones previstas en el artículo 66 quater de esta Norma Foral (incentivos a la cultura), siempre que las aportaciones realizadas a dichas agrupaciones deban ser calificadas como instrumentos de patrimonio con características especiales conforme a los criterios contables.

Abenduaren 12ko 6/2025 Foru Arauak berrikuntza batzuk sartu zituen, 2027ko zerga-gastuen aurrekontuaren estimazioan eragina dutenak. Jarraian, berrikuntza horietako aipagarrienak azalduko ditugu.

La Norma Foral 6/2025 de 12 de diciembre, incluyó algunas novedades que tienen efecto en la estimación del presupuesto de gastos fiscales de 2027, de las cuales se hace mención de las más relevantes a continuación.

Sozietateen gaineko zergari dagokionez:

En relación con el Impuesto sobre Sociedades,

- Kenkari berri bat sartu da, 2025eko urtarrilaren 1etik 2035eko abenduaren 31ra bitartean hasitako zergaldietarako soilik, garapen jasangarria, ingurumen-inpaktuaren murrizketa, trantsizio energetikoa eta ekonomia zirkularra sustatzen dituzten proiektuetan parte hartzeagatik. Kenkari hori % 50eko muga

- Se introduce una nueva deducción, con vigencia exclusiva para los periodos impositivos iniciados entre el 1 de enero de 2025 y hasta el 31 de diciembre de 2035 por la Participación en proyectos que procuren el desarrollo sostenible, la reducción del impacto ambiental, la transición energética y la economía

dutenen artean dago.

- Zerga-oinarri negatiboak konpentsatzean, aukera emango da % 50eko muga kalkulatzeko konpentsazio horren aurretik ondoz ondoko 5 zergaldiko bloke batean sortzen diren zerga-oinarri positiboen baturaren gainean. Kasu horretan, lehenengo 4 ekitaldietako bakoitzean sortutako zerga-oinarri positiboen % 100eraino konpentsatu ahal izango da; blokeko bosgarren eta azken zergaldian, zergadunak erregularizatu beharko du.

- Kenkariak aplikatzeko mugetan, zergadunak kalkulatu ahal izango ditu aipatutako % 35eko, % 50eko eta % 70eko mugak ondoz ondoko 5 zergaldiko bloke bati dagokion kuota likidoaren baturaren gainean. Kasu horretan, kenkariaren zenbatekoa lehenengo 4 ekitaldietako bakoitzari dagokion kuota likidoaren % 100erainokoa izan ahalko da; blokearen bosgarren eta azken zergaldian, berriz, zergadunak erregularizatu beharko du.

Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari dagokionez:

- 65 bis artikuluko kenkariak aplikatzeko aukera jasotzen da, garapen jasangarria, ingurumen-inpaktuaren murrizketa, trantsizio energetikoa eta ekonomia zirkularra sustatzen dituzten proiektuen finantzaketan parte hartzeagatik, 64 bis eta 65 quinquies artikuluetako kenkarien baldintza berberetan.

circular. Esta deducción se encuentra incluida entre aquellas con el límite del 50%.

- En la compensación de bases imponibles negativas se establece la posibilidad calcular en límite del 50% sobre el sumatorio de las bases imponibles positivas previas a dicha compensación que se generen durante un bloque de 5 periodos impositivos consecutivos, en cuyo caso se podrá compensar hasta el 100% de las bases imponibles positivas generadas en cada uno de los primeros 4 ejercicios, debiendo proceder el contribuyente en el quinto y último periodo impositivo del bloque.

- En los límites para aplicación de deducciones el contribuyente podrá calcular los mencionados límites del 35%, 50% y 70% sobre el sumatorio de la cuota líquida correspondiente a un bloque de 5 periodos impositivos consecutivos, en cuyo caso el importe de la deducción podrá alcanzar hasta el 100% de la cuota líquida correspondiente a cada uno de los primeros 4 ejercicios, debiendo proceder el contribuyente en el quinto y último periodo impositivo a su regularización.

En relación con el Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas:

- Se incluye la posibilidad aplicar las deducciones de artículo 65 bis, por la participación en la financiación de proyectos de desarrollo sostenible, reducción del impacto ambiental, transición energética y economía circular, en las mismas condiciones que las deducciones de los artículos 64 bis y 65 quinquies.

Horregatik, honako foru-arau hauetan jasotako arauzko aldaketei egiten diegu erreferentzia:

- 6/2025 Foru Araua, abenduaren 12koa, zeinaren bidez ezartzen baita zerga osagarri bat talde multinazionalei eta talde nazional handiei zuzendutako gutxieneko zergapetze-maila global bat bermatzeko, eta aldatu egiten baitira Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Araua eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Araua.

- 2/2025 Foru Araua, apirilaren 9koa, Bizkaiko Lurralde Historikoko tributu-sistemaren berrikuspen fiskalerako neurriak onartzen dituena.

- Bizkaiko Foru Aldundiaren 6/2025 Foru Dekretua, otsailaren 13koa, zeinaren bidez aldatzen baita Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Araudia.

- Bizkaiko Foru Aldundiaren 59/2025 Foru Dekretua, ekainaren 12koa, lanaren etekinei pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren ordainketarako aplikatuko zaizkien atxikipen-ehunekoak aldatzen dituena eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Araudia zenbait alderditan aldatzen duena.

- 8/2023 Foru Araua, azaroaren 22koa, BATUZ sistemaren behin betiko ezarpena antolatzeko neurriak onartzen dituena, zerga-arloko administrazio-lankidetzari eta beste zerga-aldaketa batzuei buruzko 2011/16/EB Zuzentaraua aldatzen duen Kontseiluaren 2021eko martxoaren 22ko 2021/514 (EB) Zuzentarauaren transposizioa egiteko.

- 4/2024 Foru Araua, abenduaren 27koa, zeinaren bidez tributu-neurriak onartzen baitira.

Por ello, nos referiremos a los cambios normativos recogidos en las siguientes Normas Forales:

- Norma Foral 6/2025, de 12 de diciembre, por la que se establece un impuesto complementario para garantizar un nivel mínimo global de imposición para los grupos multinacionales y los grupos nacionales de gran magnitud y se modifican la Norma Foral del impuesto sobre sociedades y la norma foral del impuesto sobre la renta de las personas físicas.

- Norma Foral 2/2025, de 9 de abril, por la que se aprueban medidas para la revisión fiscal del sistema tributario del Territorio Histórico de Bizkaia.

- Decreto Foral 6/2025, de 13 de febrero, de la Diputación Foral de Bizkaia, por el que se modifica el Reglamento del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas.

- Decreto Foral 59/2025, de 12 de junio, de la Diputación Foral de Bizkaia, por el que se modifican los porcentajes de retención a cuenta del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas aplicables a los rendimientos del trabajo y se introducen otras modificaciones en el Reglamento del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas.

- Norma Foral 8/2023, de 22 de noviembre, por la que se aprueban medidas para ordenar la implantación definitiva del sistema BATUZ, para la transposición de la Directiva (UE) 2021/514 del Consejo, de 22 de marzo de 2021, por la que se modifica la Directiva 2011/16/UE relativa a la cooperación administrativa en el ámbito de la fiscalidad y otras modificaciones tributarias.

- Norma Foral 4/2024, de 27 de diciembre, por el que se aprueban medidas tributarias.

Zerga-gastuaren kontzeptuetan eragina duten aldaketa horien xehetasunak pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari, sozietateen gaineko zergari eta ondare-eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergari buruzko atalean aipatzen dira.

El detalle de estos cambios que influyen en los conceptos de gasto fiscal se comenta en el apartado relativo al Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, al Impuesto sobre Sociedades y al Impuesto sobre Transmisiones Patrimoniales y Actos Jurídicos Documentados.

Aurreko paragrafoetan azaldu diren arau-aldaketek izan dezaketen eragina alde batera utzita, komeni da adieraztea 2027ko ZGAn, aurreko hiru ZGAetan bezala, ez dela ebaluatzen, Ondarearen gaineko Zergan, PFEZaren kuotarekiko muga bateratuaren doikuntza, ez dituelako betetzen zerga-onuraren kalifikazioa jasotzeko eskatzen diren baldintzak; aitzitik, tresna teknikoa da, eta helburua da zerga konfiskatzailea ez izatea, eta ez da kolektibo jakin batera bideratzen; aitzitik, teorian, zergadun guztiek aplikatu behar dute oro har, nahiz eta, praktikan, kuota osoaren murrizketa dakarten baldintzak betetzen diren kasuetan baino ez duen eraginkortasuna.

Al margen de la incidencia que pueda derivarse de los cambios normativos que se han explicado en los párrafos anteriores, conviene señalar que en el PGF 2027, al igual que en los tres PGF anteriores, deja de evaluarse, en el Impuesto sobre el Patrimonio, el ajuste por el límite conjunto con la cuota del IRPF ya que no reúne las condiciones exigidas para merecer el calificativo de beneficio fiscal, sino que constituye un instrumento de carácter técnico cuyo objeto es evitar que el tributo resulte confiscatorio, así como que no se destina a un colectivo en concreto, sino que, en teoría, es de aplicación generalizada por la totalidad de las personas contribuyentes, si bien, en la práctica, solo tenga efectividad en aquellos en lo que se cumplen los requisitos que determinan la reducción de la cuota íntegra.

Aurrekoaz gain, ZGA honetan aurreko urteetan hasitako irizpide metodologikoa mantendu da, hots, zerga-gastuaren zifrak eta haien banakapena aitortzaileen genero-ikuspegiaren arabera lortzea, zerga-gastuaren baitako bi zerga pertsonalen kasuan: PFEZa eta ondarearen gaineko zerga.

Adicionalmente, en este PGF se mantiene el criterio metodológico de años anteriores, cual es la obtención de las cifras del gasto fiscal y su desglose desde la perspectiva de género de las personas declarantes en dos de los tributos de carácter personal integrados en el mismo, como son el IRPF y el Impuesto sobre el Patrimonio.

Maila metodologikoetan bi zergetan zerga-gastua gizon eta emakumeen arabera egotzi da, aztertutako neurriek ukituak diren zergadunen generoari kasu eginda, zerga hobari guztietan ez egoteagatik gertatzen den kuota likidoaren gehikuntzak sexuen arabera banatzea kontuan hartuta.

Metodológicamente en ambos tributos se ha imputado el gasto fiscal por hombres y mujeres atendiendo al género de las personas contribuyentes afectados por las medidas analizadas teniendo en cuenta la distribución por sexo de los aumentos de cuota líquida que se producen por la no existencia de cada uno de los beneficios fiscales.

Nabarmentzekoa da PFEZari dagokiola ebaluaturiko zerga-gastu guztien ia % 32 eta ia % 42raino hazi da proportzio hori Sozietateen gaineko Zerga gehituz gero.

Resaltar que casi el 32 por ciento del total de gastos fiscales evaluados corresponden al IRPF, proporción que se incrementa hasta casi el 42 por ciento si añadimos el Impuesto sobre Sociedades.

Azken batean, 2026rako zerga-gastuen zenbateko estimatua 4.711,47 milioi euro da, hau da, aurreko ekitaldian baino kopuru handiagoa, zeren eta, aurreko ekitaldiarekin alderatuta, 375,05 milioiren gehikuntza izan baita; ehuneko 8,65eko aldakuntza positiboa, alegia. Igoera hori PFEZaren gehikuntzatik dator batez ere, aurreko urteko aurrekontuan zegokion baino zifra txikiagoa estimatu baitzen, baina PFEZerako zein SZrako egindako berrikuspen fiskalak ere eragin du igoera horretan.

Zerga-gastu guztiek sarrera teoriko guztietan duten partaidetzak eutsi egiten dio aurreko ekitaldien aldean izandako partaidetzari, eta % 30etik hurbil kokatu da.

Dokumentu honen amaieran erantsi den koadroan zerga-gastuen zergen araberako zenbatekoen banaketa ematen da eta, horien barruan, 2027. urterako dituzten osagai nagusienen arabera. Berebat, beste bi taula gehitu dira: batean, zerga-gastuek diru-sarrera teorikoetan duten banaketa ageri da, dagozkion grafikoekin batera, eta, bestean, subjektu pasiboen zerga-gastuen egozpena genero-ikuspegia kontuan harturik, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan eta ondarearen gaineko zergan.

I. Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga

Zerga-gastutzat jotzen diren PFEZeko kontzeptuen multzoan hainbat salbuespen, errenta hobari, zerga-oinarriaren murrizketa eta kuotaren zenbait kenkari sartzen dira.

Funtsean, eutsi egiten zaie azken urteetan erabilitako irizpideei, ikuspegiari, informazio-iturriei eta kalkulu-prozedurei, salbu eta, jakina, zenbatespenen oinarriak diren datuak eguneratzeari.

En definitiva, el importe estimado de los gastos fiscales para 2026, asciende a un total de 4.711,47 millones de euros, cifra que aumenta respecto a la del ejercicio anterior produciéndose un incremento de 375,05 millones de euros respecto a las estimaciones del ejercicio anterior, lo que supone una variación positiva del 8,65 por ciento. Este aumento de cifras se deriva principalmente del incremento en el IRPF derivado de la infraestimación del presupuesto del año anterior, aunque también influyen en este aumento la revisión fiscal llevada a cabo tanto para IRPF como para IS.

La participación del total gastos fiscales sobre el total de los ingresos teóricos se mantiene prácticamente respecto a los últimos ejercicios, situándose cerca del 30 por ciento.

En el cuadro final que acompaña a este documento se recoge la distribución de las estimaciones de los gastos fiscales por tributos y, dentro de éstos, según sus principales componentes para el año 2027. Asimismo, se agregan dos cuadros más, con la distribución del gasto fiscal sobre los ingresos teóricos acompañada de sus respectivos gráficos, y con la imputación de los gastos fiscales desde la perspectiva de género de las personas sujetos pasivos en el Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas y en el Impuesto sobre el Patrimonio.

I. Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas

El conjunto de conceptos del IRPF que se considera que constituyen gastos fiscales está integrado por las exenciones, bonificaciones de rentas, reducciones de base imponible, y algunas deducciones en la cuota.

Se mantienen básicamente los criterios, enfoque, fuentes de información y procedimientos de cálculo que se han utilizado durante los últimos años a excepción de la actualización de los datos en que se basan las estimaciones.

Hala, honako kontzeptu-elementu hauek zenbatetsi dira zerga-gastutzat:

- Zerga-oinarriaren murrizketak, adibidez lanagatiko hobaria, etxebizitzen alokairutik eratorritako etekinetarako hobaria, BGAE eta PPetara egiten diren ekarpenak eta zerga aitorpen bateratuagatiko murrizketa.

- Foru Arauko 9. artikuluaren salbuespenak, horien artean 190 ereduan L gakoa duten errenta salbuetsiak.

- Aurrezpenaren oinarriaren barneko dibidenduen zioz jasotako lehen 1.500 euroengatik zergak ez ordaintzeari dagokiona.

- Gehienez 40.000 euroko salbuespena Loteria Nazionaleko sarietatik eta berariazko araudian zehazturiko ausazko zenbait jokotatik jasotako zenbatekoan.

- Ohiko etxebizitzan eta biziarteko errenta aseguratuan berrinbertitzeagatiko salbuespena, bai eta 65 urtetik gorakoen eta mendekotasun larria edo mendetasun handia duten pertsonen kasuan ohiko etxebizitza eskualdatzeagatik salbuetsitako irabaziak ere.

- Kuotaren kenkariak: ohiko etxebizitzari, dohaintzei, sindikatuentzako kuotei eta jarduera ekonomikoen sustapenarekin.

  2025etik, gizarte-aurreikuspenarekin lotutako kenkariak dira Bizkaiko Lurralde Historikoko tributu-sistemaren berrikuspen fiskalerako neurriak onartzen dituen apirilaren 9ko 2/2025 Foru Arauak ZGA honetara ekarritako berrikuntzetako bat.

  Berrikuntza gisa, ZGA honetan, kenkari hauek sartu dira: etxebizitzetan energia-efizientzia hobetzeko eta energia berriztagarriak integratzeko obrak egiteagatikoak, ingurumena errespetatzen duten ibilgailu jakin batzuk erosteagatikoak, ibilgailu elektrikoak kargatzeko puntuak instalatzeagatikoak eta

Así, se cuantifican como gasto fiscal los siguientes elementos conceptuales:

- Reducciones de la base imponible tales como la bonificación de trabajo, la bonificación a los rendimientos derivados del alquiler de viviendas, las aportaciones a EPSV y PP, y la reducción por tributación conjunta.

- Exenciones del artículo 9 de la Norma Foral entre ellas las rentas exentas que constan en el modelo 190 con clave L.

- La exención relativa a la no tributación de los primeros 1.500 euros percibidos en concepto de dividendos dentro de la base del ahorro.

- La exención hasta 40.000 euros en la percepción de los premios de Lotería Nacional y ciertos juegos de azar determinados en la normativa específica.

- Exención por reinversión en vivienda habitual y en renta vitalicia asegurada, así como, las ganancias exentas por la transmisión de la vivienda habitual de mayores de 65 años y por personas en situación de dependencia severa o gran dependencia.

- Deducciones de la Cuota: las relativas a la vivienda habitual, los donativos, cuotas a sindicatos y aquellas relacionadas con la promoción de las actividades económicas.

  Desde 2025, introducida por la Norma Foral 2/2025, de 9 de abril, por la que se aprueban medidas para la revisión fiscal del sistema tributario del Territorio Histórico de Bizkaia la revisión fiscal, se incluyen las deducciones relacionadas con la Previsión Social.

  Como novedad en este PGF se incluye también las deducciones por la realización de obras de eficiencia energética e integración de energías renovables en las viviendas, por adquisición de determinados vehículos respetuosos con el medio ambiente, por instalación de puntos de recarga de vehículos eléctricos y por

alokatutako etxebizitza birgaitzeagatikoak. Kenkari horiek guztiak «Beste kenkari batzuk» multzoaren barruan ageri dira.

Atal hauetan jasota daude adierazitako guztiaren xehetasunak:

1. Zerga-gastua zerga-oinarrian

1.1. Salbuespenak

- Loteria eta apustu jakin batzuetako sarien gaineko karga bereziaren salbuespena. Zerga-gastu hori erabat ausazkoa da, haren izaerari begiratuz gero. Kalkulua Estatuko ZGAn erabilitako datuen arabera egiten da. 2026ko ZGArako 32,8 milioi euro ingurukoa da, % 7,4 hazita.

- Dibidenduen 1.500 euroko salbuespena

  Kasu honetan, PFEZaren aitorpenetan ageri diren datu fiskaletatik abiatuz kalkulatu da, aurrezkiaren oinarriari dagozkion karga-tasak aplikatuz, 2026ko PFEZean indarrean dagoen araudiaren araberakoak, zeinak aldatu egin baititu apirilaren 9ko 2/2025 Foru Arauak, zeinak Bizkaiko Lurralde Historikoko tributu-sistemaren berrikuspen fiskalerako neurriak onartzen baititu.

  2026ko PFEZaren ekitaldirako, salbuespenaren ondoriozko zerga-gastua 1.500 eurokoa izango dela aurreikusten da, aurreko ekitaldikoaren oso antzekoa, 24 milioi baino gehixeago.

- Ohiko etxebizitzan egindako berrinbertsioaren ziozko salbuespena.

  Ohiko etxebizitza eskualdatzean lortutako ondare irabazien ziozko salbuespena zerga-gastuaren kasu bat izango da, besterentzearen zenbateko osoa edo zati bat etxebizitza berri bat erosteko berrinbertitzen denean.

rehabilitación de vivienda arrendada. Todas estas deducciones aparecen incluidas dentro del grupo “Otras deducciones”.

El detalle de todo lo expuesto se recoge en los apartados siguientes.

1. Gasto Fiscal en Base Imponible

1.1. Exenciones

- Exención en el gravamen especial sobre los premios de determinadas loterías y apuestas. Este es un gasto fiscal que por su naturaleza es totalmente aleatorio. Su cálculo se hace en función de los datos utilizados en el PGF del Estado. Para el PGF 2027 se cifra en alrededor de 32,9 millones de euros, con un incremento del 0,45%.

- Exención 1.500 euros por dividendos

  En este caso, se realiza su cálculo a partir de los datos fiscales contenidos en las declaraciones de IRPF, aplicando los tipos de gravamen correspondiente a la base del ahorro vigentes en IRPF 2026 modificados por Norma Foral 2/2025, de 9 de abril, por la que se aprueban medidas para la revisión fiscal del sistema tributario del Territorio Histórico de Bizkaia.

  Para el ejercicio IRPF 2026 se prevé un gasto fiscal por la exención de 1.500 euros muy similar a la del ejercicio anterior, algo más de 24 millones.

- Exención por reinversión en vivienda habitual

  La exención de las ganancias patrimoniales obtenidas en la transmisión de la vivienda habitual, cuando parte o el total del importe de enajenación se reinvierta en la adquisición de una nueva vivienda habitual constituye un supuesto de gasto fiscal.

2026ko PFEZean kalkulatuko den zenbatekoaren aurreikuspena egin da aurreko urteetako aitorpenetan kontsignatutako zenbatekoetan oinarrituz. Aurrezkiaren oinarrian zergapetze-faseetarako dauden zerga-tasetatik eratorritako batez besteko batek zehaztuko du kostua.

Sobre la base de los importes consignados en declaraciones de varios años anteriores y la actual coyuntura económica, se ha realizado una proyección del importe que se computará en IRPF 2026 y su coste vendrá determinado por la aplicación de un tipo medio de gravamen derivado de los existentes para los tramos de tributación en la base del ahorro.

Gainera, aipatu behar da ezen, zergari buruzko foru-arauaren 49. artikuluari jarraikiz, tratamendu berria ematen zaiela ohiko etxebizitza eskualdatzetik eta berrinbertitzetik eratorritako irabaziei, kargatik salbuetsiko baitira, baldin eta etxebizitza aldatzea justifikatzen duen inguruabarren bat gertatzen bada. Foru-arauak aldaketa justifikatzen duten inguruabarrak jasotzen ditu zerrenda ireki batean, eta bidea zabalik uzten da zerrenda hori erregelamendu bidez zabaltzeko.

Además, es necesario mencionar el nuevo tratamiento que en el artículo 49 de la Norma Foral del Impuesto se da a las ganancias derivadas de la transmisión de la vivienda habitual y su reinversión, que se excluirán de gravamen siempre que concurra alguna circunstancia que justifique el cambio de vivienda. La Norma Foral recoge un número no cerrado de circunstancias que justifican el citado cambio posibilitando la ampliación del elenco por vía reglamentaria.

2026ko ekitaldirako, Bizkaiko higiezinen merkatuak, zeina higiezinen transakzioei baitagokie (etxebizitzen salerosketa) eta zeinaren jarduerak prezioen gorakadari aurre egiten jarraitzen baitu, gorakada txiki bat izango duela ustea da. Beraz, zerga-gastuan, gehikuntza txiki bat aurreikusten da, zeina ia 24,2 milioi eurokoa izango baita 2026ko PFEZerako.

Para el ejercicio 2026, el mercado inmobiliario de Bizkaia referente a las transacciones inmobiliarias (compraventa de viviendas), cuya actividad continúa desafiando el alza de los precios, se estima que experimente un ligero repunte, por tanto, se prevé un leve incremento del gasto fiscal, el cual se cifra para IRPF 2026 en 24,2 millones de euros.

Halaber, zerga-gastu gisa zenbatesten dira irabazi salbuetsi hauek:

Asimismo, se cuantifican como gasto fiscal las siguientes ganancias exentas:

- 65 urtetik gorako zergadunek ondare-elementuak eskualdatzen dituztenean, eskualdatzearen bidez lortutako zenbateko osoa sei hilabeteko epean haien alde aseguratutako biziarteko errenta osatzeko erabiltzen denean (1,8 milioi). Zenbateko hori aurreko ekitaldian zenbatetsitakoa baino txikixeagoa da.

- Con ocasión de la transmisión de elementos patrimoniales por contribuyentes mayores de 65 años, cuando el importe total obtenido por la transmisión se destine en el plazo de seis meses a constituir una renta vitalicia asegurada a su favor (1,8 millones), cantidad ligeramente inferior a la estimada en el ejercicio anterior.

- 65 urtetik gorakoek kostu bidez ohiko etxebizitza eskualdatzen dutenean; 13,37 milioi euroko zenbatespena izango du. Zenbateko hori 2026ko aurrekontuarena baino nabarmen handiagoa da, benetako datutik urrun geratu baitzen.

- Mendekotasun larria edo mendetasun handia duten pertsonek beren ohiko etxebizitza kostu bidez eskualdatzen dutenean; zenbateko txikia da oraindik ere beste kontzeptu batzuen aldean (0,39 milioi).

- Gainera 13/2013 Foru Arauaren 9. artikuluko salbuespenen aurrekontua egin da, zeinak jasotzen baitira 190 ereduan. Eredu horrek lanaren, jarduera ekonomikoen eta sarien etekinei egindako atxikipenen urteko laburpena ematen du.

Atal honen barruan, erabili beharreko datuak entitate aitortzaileek aurkeztutako 190 eredutik aterako dira. Eredu horretan, besteak beste, Foru Arauaren aipatutako artikuluan ezarritakoaren arabera kargatutako errentatzat hartzen ez diren hartukizunak jasotzen dira.

Aplikatutako metodologia eredu hori aurkeztu dutenek aitortutako zenbatekoetan oinarritzen da, jasotzaileak banaka identifikatuz eta zergaren pean daudela onartuz, lan pertsonalaren etekinak diren heinean.

Horrek zergaren zenbait alderdi tekniko kontuan hartu beharra dakar. Esate baterako, lanaren hobaria; kuota orokorra gutxitzea; desgaitasunaren edo mendekotasunaren ziozko kenkaria kasu batzuetan, eta errenta irregularretarako zehaztutako integrazio-ehunekoak aplikatzea. Ildo horretan, honako hauek nabarmendu behar dira: lan-etekinaren hobari-zenbateko berriak aplikatzea, zeinak

- Con ocasión de la transmisión onerosa de su vivienda habitual por personas mayores de 65 años, cuyo importe se estima en 13,37 millones de euros. Importe considerablemente superior al del presupuesto de 2026 que se quedó lejos del dato real.

- Con ocasión de la transmisión onerosa de su vivienda habitual por personas en situación de dependencia severa o gran dependencia, cuyo importe sigue siendo reducido (0,39 millones) respecto a otros conceptos.

- Además, se presupuestan las exenciones contempladas en el artículo 9 de la Norma Foral 13/2013, incluidas en el modelo 190, que constituye el resumen informativo anual de las retenciones practicadas sobre rendimientos del trabajo, actividades económicas y premios.

Dentro de este apartado, los datos a utilizar se obtendrán del modelo 190 presentado por las entidades declarantes, en el que se recogen, entre otros conceptos, aquellas percepciones que no se consideran renta gravada conforme a lo establecido en el mencionado artículo de la Norma Foral.

La metodología aplicada se basa en los importes declarados por los presentadores del citado modelo, identificando individualmente a las personas perceptoras y asumiendo que dichos importes corresponden a rendimientos del trabajo personal sujetos al impuesto.

Este enfoque requiere considerar determinados aspectos técnicos del impuesto, tales como la bonificación del trabajo, la minoración de la cuota general, la deducción por discapacidad o dependencia en algunos casos, y la aplicación de porcentajes de integración definidos para las rentas irregulares. En este sentido, cabe destacar la aplicación de los nuevos importes de

berrikuspen fiskalak ekarri baititu, bai eta ezohiko kuotaren gutxitzea kentzea, zeina indarrean egon baita 2022ko, 2023ko eta 2024ko ekitaldietan.

Elementu horiekin guztiekin, zergaren kuota likidoa zehazten da errenta mota hori jasotzen duen pertsona bakoitzarentzat, kontuan hartu gabe PFEZa aurkezten duen pertsona den ala ez. Bereziki, adingabearen jaiotzagatiko eta zaintzagatiko prestazioaren kasuan, kontuan hartu da zergapetutako errenta gisa ez sartzeak diru-bilketan izan duen kostua. 2027ko ekitaldirako 23,55 milioi euro inguruko kostua zenbatetsi da.

Garrantzia kuantitatiborik handiena duen kontzeptua ezintasunagatiko prestazioei dagokiena da, dela 55 urtetik gorakoek jasotzen duten ezintasun iraunkor osoa, ezintasun absolutua zein baliaezintasun handia, beren banakako zenbatekoengatik zein eragindako zergadunen kopuru handiagatik.

Sartu gabeko kuota likidoaren guztizko zenbatekoa, zeina salbuetsitako hartukizun guztietatik baitator, 157,65 milioi euro da, hau da, aurreko urtean baino % 13,4 gehiago. Kopuru absolutuetan, igoera handiena izan duen kontzeptua ezintasun iraunkor absolutuagatiko eta baliaezintasun handiagatiko prestazioena izan da, ia 2,5 milioi igo baitira. Gora egin dute, berebat, Gizarte Segurantzak ematen dituen aitatasun- eta amatasun-prestazioek, zurztasun-pentsioek eta ardurapeko seme-alabengatiko prestazioek.

Gehien gutxitu direnei dagokienez, prestazio hauek nabarmentzen dira: gizarteratzeko gutxieneko errenta eta bizitzeko gutxieneko diru-sarrera. Murriztapen horiek kalkuluan azaltzen dira nagusiki, lanaren etekinari aplika dakiokeen hobariaren zenbatekoa gehitu egin baita zerga-berrikuspenaren ondorioz.

bonificación del rendimiento del trabajo, introducidos con la revisión fiscal, así como la supresión de la minoración de cuota extraordinaria, vigente durante los ejercicios 2022, 2023 y 2024.

Con todos estos elementos, se determina la cuota líquida del impuesto correspondiente a cada persona perceptora de este tipo de rentas, con independencia de que se trate o no de una persona presentadora del IRPF. En particular, en el caso de la prestación por nacimiento y cuidado del menor, se ha tenido en cuenta el coste recaudatorio derivado de su no inclusión como renta gravada. Para el ejercicio 2027, dicho coste se estima en aproximadamente 23,55 millones de euros.

El concepto con mayor relevancia cuantitativa es el referido a las prestaciones por incapacidad, ya sea por incapacidad permanente total percibida por personas mayores de 55 años, incapacidad absoluta o gran invalidez, tanto por sus cuantías individualizadas como por el elevado número de personas contribuyentes afectadas.

El importe total de la cuota líquida no ingresada derivado del conjunto de percepciones exentas asciende a 157,65 millones de euros, lo que representa un incremento del 13,4% respecto al año anterior. En términos absolutos el concepto que ha experimentado una mayor subida es de las prestaciones por incapacidad permanente absoluta y gran invalidez que han aumentado en casi 2,5 millones. Han aumentado también las prestaciones de la Seguridad Social por paternidad y maternidad, y las pensiones de orfandad y prestaciones por hijo a cargo.

En cuanto a las disminuciones, destacan las registradas en las prestaciones concedidas en concepto de renta mínima de inserción y las del ingreso mínimo vital. Estas reducciones se explican principalmente en el cálculo, por el incremento en el importe de la bonificación aplicable al rendimiento del trabajo, introducido con la revisión fiscal.

Dibidenduen ziozko salbuespena, Loteria sariei dagokiena eta ohiko etxebizitzaren berrinbertsioaren ziozkoa gehitzen badizkiogu, salbuespenengatiko ia 254,8 milioi euroko zerga-gastua izango genuke, PFEZarengatiko guztizko zerga-gastuaren % 16,97 baino gehiago.

Si a ello le añadimos las exenciones por dividendos, la relativa a los premios de determinadas loterías y la que se deriva de las ganancias exentas, obtendríamos un gasto fiscal por exenciones de 254,8 millones de euros, el 16,97 por ciento del total del gasto fiscal por IRPF.

1.2. Zerga-oinarriaren murrizketak

Kalkuluaren metodologia aurreko urteetako bera da, eta funtsean mikrosimulazioko sistema aplikatzen da aurreko ekitaldiko PFEZ zergadunen kolektiboaren banan-banako informazioa dakarten datu basearen gainean, aurreko puntuan bezala.

Datu fiskalak 2026ko ekitaldi fiskalera arte proiektatzen dira, eskura dauden datuen eta prestatzen ari den aurrekontuaren arteko denbora-desfasea zuzenduko duten adierazle demografiko eta ekonomikoak erabiliz.

Ondoren, mikrosimulazioa egiten da, batera, dagozkion pizgarriekin eta pizgarririk gabe, eta zerga-gastu bakoitza kalkulatzen da bi egoeretan, hots, zerga-pizgarriarekin eta pizgarririk gabe, lortutako kuota likidoen diferentziaren bidez.

Horrela, lanaren ziozko hobariari, gizarte aurreikuspeneko planetara egindako ekarpenei eta baterako zerga-ordainketagatiko murriztapenari buruzko zerga-gastuak zenbatesten dira.

Aurretik aipatutako zerga-berrikuspenak ekarritako berrikuntza gisa, bigarren aldiz kuantifikatu da etxebizitzen alokairuaren ondoriozko kapital higiezinaren etekinei aplikatu beharreko hobaria, metodologia bera erabiliz.

1.2. Reducciones en la base imponible

La metodología de cálculo no varía respecto a años anteriores, consistiendo básicamente en la aplicación de un sistema de microsimulación sobre la base de datos que contienen información individualizada del colectivo de contribuyentes del IRPF del ejercicio precedente, al igual que en el apartado anterior.

Los datos fiscales se proyectan hasta el ejercicio fiscal 2026 mediante el uso de indicadores demográficos y económicos que corrijan el desfase temporal entre los datos disponibles y el presupuesto que se está elaborando.

A continuación, se efectúa la microsimulación de manera conjunta con y sin los incentivos correspondientes, y se calcula cada uno de los gastos fiscales mediante la diferencia de las cuotas líquidas obtenidas en las dos situaciones, con el incentivo fiscal y sin él.

De esta forma se estiman los gastos fiscales relativos a la bonificación de trabajo, las aportaciones a sistemas de previsión social y la reducción por tributación conjunta.

Como novedad, introducida por la revisión fiscal, anteriormente señalada, se cuantifica por segunda vez la bonificación aplicable a los rendimientos del capital inmobiliario derivados del alquiler de viviendas, empleando idéntica metodología.

Baterako zerga ordainketaren ondoriozko murrizketari dagokionez, portzentaje bat aplikatuko da baterako zerga ordainketaren ondorioz zerga-oinarria murrizten ez dela simulatzean ateratako zerga-gastuaren emaitzari.

Adierazi den portzentaje horren helburua gertatzen den eragina arintzea da, hau da, zerga-ordainketa bateratuak egitearen duen tributazio indibidualarekin erkatuta gertatzen den errenten metatzeagatik.

Azken ekitaldietan, metatze-efektu hori murrizteko kalkulu-metodologian erabiltzen den koefizientea murriztu da, zeren eta ia erabateko nagusitasuna baitute errenten jasotzaile bakarreko baterako aitorpenek. Kontzeptu horri dagokion zerga-gastua 85 milioi euro baino gehixeagoan zenbatetsi da. Ikus daitekeenez, zenbatekoa ehuneko 6 gehitu da aurreko urtearekin alderatuta, baina ez da iritsi familia-unitatearen modalitateak aldatu aurreko zenbatekoetara. Aldaketa hori berrikuspen fiskalerako neurriak onartzen dituen apirilaren 9ko 2/2025 Foru Arauari jarraikiz egin zen; izan ere, baterako aitorpena aurkeztearen aldeko hautua egin daitekeen kasuak murriztu zituen. Dena dela, murriztapen hori leundu egin da murriztapen bakar bat ezarriz, 4.800 eurokoa.

BGAE eta PPetarako ekarpenei dagokienez, azken urteetan ekarpenen zenbatekoak gorantz doazela ikusi da. Horren ondorioz, eta kontuan harturik 2/2025 FAn sartutako arau-aldaketa, 144,3 milioiko zerga-gastua zenbatetsi dugu; hori aurreko aurrekontuarekin alderatuta ia % 7,3ko gehikuntza da.

En cuanto a la reducción por tributación conjunta, se aplica un porcentaje reductor sobre la cuantía del gasto fiscal obtenido al simular la no existencia de la reducción en base imponible por tributación conjunta.

Este porcentaje tiene como finalidad paliar el efecto que se produce como consecuencia de la acumulación de rentas que conlleva la tributación conjunta, en comparación con la tributación individual.

En los últimos ejercicios, se ha reducido el coeficiente que se aplica en la metodología de cálculo para paliar este efecto acumulativo ya que el predominio de las declaraciones conjuntas con una sola persona perceptora de rentas es casi total. El gasto fiscal por este concepto se estima en poco más de 85 millones. Se puede apreciar que el importe ha aumentado un 6 por ciento respecto al año anterior, aunque sin alcanzar los importes previos a la modificación de las modalidades de unidad familiar introducida en la NF 2/2025, de 9 de abril, por las que se aprueban de medidas para la revisión fiscal, que redujo los supuestos en los que se podrá optar por presentar declaración conjunta amortiguado por la existencia de una única reducción de 4.800 euros.

En el caso de las Aportaciones a Sistemas de Previsión Social, se observa durante los últimos años una tendencia creciente en la cuantía de las aportaciones, lo que unido a la modificación normativa introducida en la citada NF 2/2025, nos lleva a estimar un gasto fiscal de 144,3 millones con un incremento del 7,3 por ciento respecto al presupuesto precedente.

PFEZaren azken kanpainari buruzko datuak ikusita, zeinek lanaren etekin garbi handiagoa erakusten baitute, zerga hori aurkeztu duten besteren konturako langileen kopuruaz gain, eta aurreko urteetako goranzko joerari jarraituz, eta kontuan harturik lan pertsonalaren hobaria gehitu dela errentarik txikienentzat (2/2025 FA), 2025eko PFEZerako zerga-gastuaren goranzko estimazioa egin da, aplikatutako lan-hobariari dagokiona: 572,8 milioi, hau da, ehuneko 576,25 gehiago.

Berebat, berrikuspen fiskalerako 2/2025 FAk zenbait hobari-ehuneko ezarri ditu, zeinak kapital higiezinaren etekin osoei aplikatzen baitzaizkie gastu gisa, kontuan harturik zer motatakoa den errentan emandako etxebizitza. Ildo horretan, ehunekoa 100eko 30 da etxebizitza-premia iraunkorra asetzen duen etxebizitzaren errentamenduaren kasuan. Beste bi kasu hauetan, berriz, 100eko 70 da: lehenik, Eusko Jaurlaritzaren programetatik edo autonomia-, foru- edo udal-mailako antzeko beste etxebizitza-plan eta -programa batzuetatik datozen kapital higiezinaren etekinen kasuan, eta, bigarrenik, premia iraunkor bat asetzen duen etxebizitza-errentamendutik datozen kapital higiezinaren etekinen kasuan, baldin eta etxebizitza bizitegi-merkatu tentsionatutzat deklaratutako eremu batean badago, betiere lehen aldiz alokatzen bada edo azken bost urteetan alokatu ez bada eta berriz alokatzen bada. Halaber, etxebizitza turistikoen edo denboraldikoen errentatzaileek etekin osoaren gaineko hobari txikiagoa izango dute: 100eko 20. Zerga-gastua bigarren aldiz estimatu da ekitaldi honetan, eta ia 39 milioi eurokoa izango dela kalkulatu da.

A la vista de los datos relativos a la última campaña del IRPF, que muestran un mayor rendimiento neto del trabajo además del número de personas trabajadoras por cuenta ajena presentadoras del mismo, y siguiendo la tendencia creciente de años anteriores, sumado al ya comentado incremento de la bonificación del trabajo personal para las rentas más bajas recogido en la NF 2/2025, se ha realizado una estimación del gasto fiscal para IRPF 2025 correspondiente a la bonificación del trabajo aplicada, que se cifra en 576,25 millones.

Asimismo, se han introducido por la NF 2/2025 de revisión fiscal diferentes porcentajes de bonificación aplicables sobre los rendimientos íntegros del capital inmobiliario en concepto de gastos, en función de la tipología de la vivienda arrendada. En este sentido, el porcentaje es del 30 por 100 cuando se trate de arrendamiento de vivienda que satisfaga la necesidad permanente de la misma, siendo del 70 por 100, en primer lugar, en el supuesto de rendimientos del capital inmobiliario procedentes de los programas del Gobierno Vasco, o de otros planes y programas de vivienda autonómicos, forales o municipales similares, y en segundo lugar, en el supuesto de rendimientos de capital inmobiliario procedentes del arrendamiento de vivienda que satisfaga una necesidad permanente, situada en una zona declarada de mercado residencial tensionado, cuando esta sea arrendada por primera vez o no lo haya sido en los últimos cinco años y se vuelva a arrendar. Igualmente, el arrendador de viviendas turísticas o de temporada, va a disponer de una bonificación inferior, del 20 por 100 sobre el rendimiento íntegro. El gasto fiscal se estima por segunda vez este ejercicio, y se prevé que ascienda casi a 39 millones de euros.

Zehazki, 2027ko aurrekonturako 2026 ekitaldiko PFEZaren zerga-oinarriaren zerga-gastua, oinarriaren kenkarien zenbatespenak jasotzen dituena, 844,73 milioi euro baino gehixeagoan zenbatetsi da, hau da, aurreko urteko ZGArekin alderatuta ia % 5ekoa den igoerarekin.

En concreto, el gasto fiscal en la base imponible del IRPF del ejercicio 2026 para el Presupuesto 2027, que incluye las anteriores estimaciones de reducciones de la base, se cifra en algo más 844,73 millones de euros, importe que aumenta respecto al PGF del año anterior, con un incremento de casi el 5 por ciento.

2. Kuotaren kenkariak

Kuotako kenkari jakin batzuei dagokien zerga-gastuak zenbatesteko, 2025 eta 2024 ekitaldietako aitorpenetan jasotako zenbatekoak proiektatu egiten dira aurrekontu-urtean, 2027an, aurkeztuko direnetarako, honako hauek kontuan hartuta:

